**NAZIOARTEKO ARGAZKI LEHIAKETA**
CONCURSO INTERNACIONAL DE FOTOGRAFÍA

# MUNDU ARTEKO BEGIRADAK
# MIRADAS ENTRE MUNDOS





**Oinarriak** / Bases

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Lankidetza
Cooperación

# NAZIOARTEKO ARGAZKI LEHIAKETA “MUNDU ARTEKO BEGIRADAK”
# CONCURSO INTERNACIONAL DE FOTOGRAFÍA “MIRADAS ENTRE MUNDOS”

## 1. LEHIAKETAREN XEDEA

“Mundu Arteko Begiradak” argazki lehiaketa Donostiako Udaleko Lankidetza Sailak sustatutako ekintza da, eta askotariko errealitateak ikusaraztea zein egun bizi ditugun desberdinkeria eta desberdintasunen inguruan sentsibilizatzea du helburu.

Donostia Mundu Artean programaren barruan sartzen da. Honen agendan, Donostiako GGKE-ek, elkarteek, kolektiboek edo erakunde eta taldeek egindako gizarte eraldaketarako hezkuntza jarduerak biltzen ditu, Lankidetza Sailaren ekimenekin batera. Munduan gertatzen ari dena ezagutzeko leihoa da. Donostia Mundu Artean osatzen duten jarduerek errealitate desberdinak erakusten eta gure gizarteetan dauden desberdintasunen jatorria aztertzen dute. Gainera, gizarte globalizatzaileari eta indarrean dauden balioei buruzko ikuspegi kritikoa ematen dute, eta proiektu eta ikuspegi alternatibo ugari eskaintzen dizkiete donostiarrei.

Beraz, pobrezia egoerak eta bidegabekeria sozialak eragiten dituzten egitura neoliberalei buruzko jarrera eta kontzientzia kritikoa sustatu nahi duten hainbat jarduera biltzen dituen programa da, ez bakarrik herrialde txiroetan, baita Ipar Globalean ere. Era berean, guztientzat bidezkoagoa den sistemaranzko egitura-aldaketaren ekimenak eta prozesuak ikusarazten eta haiei ahotsa ematen zaie.

## 2. TESTUINGURUA

Mundua eraldaketa handiak jasaten ari da. Mundu globalizatu, interkonektatu eta interdependente batean bizi gara. Testuinguru horretan, gero eta konplexuagoak diren eta modu desberdinetan egituratzen diren gizarteak aurkitzen ditugu. Desberdinkeriek gora egiten jarraitzen dute: justiziarik eza Ipar-Hego arteko harremanetan, pobrezia-poltsa handiak herrialde “garatuetan”... Gauzak horrela, planeta osoko kolektibo zapalduek gero eta justizia sozial handiagoa aldarrikatzen dute.

Krisi multidimentsional eta sakon batean sartu gara, krisi sozial, ekonomiko, ekologiko eta zaintza-krisi batean, besteak beste. Maila globalean eta planetarioan klima-aldaketa, biodibertsitatearen galera eta baliabide naturalen agortzea bezalako egoerei aurre egin behar diegu.

Testuinguru horretan, nazioarteko lankidetzaren helburua mugaz gaindiko lankidetza sarea egituratzea da, horien artean, generoaren, giza eskubidearen eta ingurumen eskubideen zeharkako ikuspegiarekin.

## 1. OBJETO DEL CONCURSO

El concurso fotográfico “Miradas Entre Mundos” es una acción promovida por el Departamento de Cooperación del Ayuntamiento de Donostia, que tiene por objetivo visibilizar realidades diversas y sensibilizar sobre las crecientes desigualdades.

Se enmarca en el programa Donostia Mundu Artean, una agenda que integra distintas actividades de Educación para la transformación social realizadas por ONGDs, asociaciones, colectivos o distintas entidades y agrupaciones de Donostia, junto a las propias iniciativas del Departamento de Cooperación. Es una ventana para conocer lo que está pasando en el mundo. Las actividades que forman Donostia Mundu Artean tratan de mostrar las distintas realidades y analizan el origen de las desigualdades presentes en nuestras sociedades. Además, brindan una mirada crítica sobre la sociedad globalizadora y los valores vigentes, ofreciendo un amplio abanico de proyectos y visiones alternativas a la ciudadanía donostiarra.

Se trata, pues, de un programa que integra diversas actividades que quieren fomentar una actitud y una conciencia crítica respecto a las estructuras neoliberales que provocan situaciones de pobreza e injusticia social, no sólo en países empobrecidos, sino también en el Norte Global. Asimismo, se visibiliza y se da voz a las iniciativas y procesos de cambio estructural hacia un sistema más justo para todas y todos.

## 2. CONTEXTO

El mundo está sufriendo importantes transformaciones. Habitamos un mundo globalizado, interconectado e interdependiente. En este contexto, nos encontramos con unas sociedades cada vez más complejas y que se articulan de maneras diversas. Las desigualdades siguen aumentando: falta de justicia en las relaciones Norte/Sur, importantes bolsas de pobreza en los países “desarrollados”... Lo que ha generado una creciente demanda de justicia social por parte de colectivos oprimidos de todo el planeta.

Nos hemos adentrado en una crisis multidimensional y profunda, una crisis social, económica, ecológica y también de cuidados. A nivel global y planetario afrontamos situaciones tales como el cambio climático, la perdida de la biodiversidad y el agotamiento de los recursos naturales.

En este contexto, la cooperación internacional trata de articular una red de colaboración transfronteriza con un enfoque transversal de género, de derecho humanos, derechos medioambientales etc.

Horregatik, lehiaketa honetara aurkeztutako obren helburua errealitate horiek aztertzea eta argazki bidez irudikatzea izango da. Irudiek planetako edozein txokotako errealitateak islatu ditzakete, eta positiboki baloratuko da beste lurralde batzuetan gertatzen denarekin, bai eta harreman horien ondorioz sortutako desberdinkeriekin ere lotura izatea.

## 3. IRUDIEN EZAUGARRIAK

Honako adierazle hauek lagungarriak dira lehiaketan aurkeztu beharreko argazkiak aukeratzeko. Ez dira nahitaezkoak, eta ez dira guztiak bete behar, nahiz eta positiboki baloratuko den obretan islatzea:

- Kulturen aniztasunaren, ohituren eta bizimoduen aitortza eta errespetua.
- Arazo zehatzak (sozialak, ekonomikoak, ingurumenekoak), bai eta arazo horiei aurre egiteko borrokak eta erresistentzia-praktikak ere.
- Justiziaren, elkartasunaren eta giza eskubideen errespetuaren balioak.
- Feminismoa eta emakumeen eta gizonen berdintasuna.
- Ingurumenaren zaintza eta bizitzaren iraunkortasuna.
- Mundu mailako errealitate desberdinen arteko interdependentzia eta botere harreman horietan sortutako desorekak.

Irizpide etiko hauek errespetatu beharko dira:

- Obretan helarazitako mezuak diskriminazio mota oro saihestea (arrazakeria, sexismoa, diskriminazio kulturala, erlijiosoa, sozioekonomikoa eta/edo beste mota batekoa).
- Emakumeak eta/edo genero araua trasgreditzen duten identitateak islatzeko orduan, estereotiporik gabeko irudikapenak sustatzea.
- Pobretutako pertsonak gure penaren objektu gisa aurkezten dituzten irudiak saihestea, hain zuzen, gogoeta egitera baino gehiago karitatera bultzatzen dutenak (ez du esan nahi irudi dramatikoak saihestu behar direnik, baina betiere pertsonaren duintasuna errespetatuz).

Por ello, las obras presentadas a este concurso han de tener como objetivo abordar estas realidades y representarlas mediante fotografías. Las imágenes podrán reflejar realidades de cualquier rincón del planeta, y se valorará positivamente que tengan una conexión con lo que ocurre en otros territorios y las desigualdades generadas por dichas relaciones.

## 3. CARACTERÍSTICAS DE LAS IMÁGENES

Los siguientes indicadores cumplen una función orientativa y de apoyo para la elección de las fotografías a presentar en el concurso. No son obligatorios, ni deben cumplirse en su totalidad,  aunque se valorará de manera positiva que se reflejen en las obras:

- El respeto y el reconocimiento hacia la diversidad de culturas, sus costumbres y formas de vida.
- Las problemáticas concretas (sociales, económicas, medioambientales...). Así como, las luchas y resistencias para hacer frente a estas problemáticas.
- Los valores de justicia, solidaridad y respeto a los derechos humanos.
- El feminismo y la igualdad de mujeres y hombres.
- El cuidado del medio ambiente y la sostenibilidad de la vida.
- La interdependencia entre distintas realidades a escala mundial y las desigualdadas generadas en dichas relaciones de poder.

Se deberán respetar los siguientes criterios éticos:

- El mensaje transmitido en las obras debe evitar toda clase de discriminación (racismo, sexismo, discriminación cultural, religiosa, socioeconómica y/o de otra índole).
- Fomentar representaciones positivas y no estereotipadas a la hora de reflejar mujeres y/o identidades que trasgreden las normas de género.
- Evitar imágenes que presenten a las personas empobrecidas como objetos de nuestra pena, que incitan más a la caridad que a la reflexión (no significa evitar imágenes dramáticas, pero siempre respetando la dignidad de la persona).

## 4. NORK HAR DEZAKE PARTE?

- Lanak onartzeko epea amaitzean 18 urte beteta dituen edo hortik gorako edozein pertsona fisikok parte har dezake.
- Edozein nazionalitate eta herrialdeko pertsonek parte har dezakete.

## 5. NON ETA NOIZ PARTE HARTU?

Argazkiak eta izen-emate orria elektronikoki bidaliko dira, **https://www.donostia.eus/transfer** aplikazioaren bidez, **lankidetza@donostia.eus** helbidera, “CONCURSO DE FOTOGRAFÍA/ARGAZKIGINTZA LEHIAKETA” gaiarekin mezuan. Lanak jasotzeko epea 2021eko otsailaren 28an, 23: 59an, amaituko da (Espainiako ordua / UTC/GMT +1 ordu).

Obrak aurkezterakoan, izena emateko inprimakia erantsi behar da; bestela, hautagaitza ezetsi egingo da. Formularioa esteka honetan dago eskuragarri: **www.donostia.eus/lankidetza**

## 6. LANAK

- Aurkeztutako argazkiek ezin dute aurretik lehiaketaren batean saritutakoak izan, ez sari gisa, ez accesit gisa, ez finalista gisa. Erakusketetan aurkeztutako edo Interneten zabaldutako argazkiak onartuko dira: blogak, galeriak edo webgune pertsonalak, besteak beste.
- Argazki teknika librea izango da. Koloretako eta zuri-beltzeko argazkiak onartuko dira. Formatu digitala baino ez da egongo. Gehienez 6 argazki aurkeztu ahal izango dira pertsonako. JPG edo JPEG formatuan bidaliko dira, alde nagusiko gutxienez 3.000 pixelekin, interpolarrik gabe. Artxiboak ez dira 5MB-tik gorakoak izango. Saritutako pertsonek, aukeratutako irudia ahalik eta bereizmen handienera bidali beharko dute eta 300 ppp-ra.
- Positiboki baloratuko da formatu horizontaleko argazkiak aurkeztea.
- Argazkiak ezingo dira elektronikoki aldatu, ezta beste edozein bide erabilita ere, eta ez da fotomuntatzerik onartuko. Soilik kolore, kontraste eta argitasunari lotutako zuzenketak onartuko dira. Zalantzarik izanez gero, epaimahaiak jatorrizko artxiboa eskatu ahal izango dio egileari.

## 4. ¿QUIÉN PUEDE PARTICIPAR?

- Podrá participar cualquier persona física que tenga 18 años a la fecha de cierre del plazo de admisión de obras.
- Podrán participar personas de cualquier nacionalidad y residencia.

## 5. ¿COMO Y CUANDO PARTICIPAR?

Las fotografías y el formulario de inscripción se enviarán electrónicamente a través de la aplicación **https://www.donostia.eus/transfer** al correo **lankidetza@donostia.eus** con el siguiente asunto, “CONCURSO DE FOTOGRAFIA/ARGAZKIGINTZA LEHIAKETA”. El plazo de recepción de las obras será hasta el día 28 de febrero del 2021 a las 23:59 ( hora española / UTC/ GMT +1 hora).

En el momento de presentar las obras, se debe adjuntar el formulario de inscripción, en caso contrario, la candidatura será desestimada. Formulario disponible en : **www.donostia.eus/lankidetza**

## 6. LAS OBRAS

- Las fotografías presentadas no deben haber sido galardonadas en otro concurso o certamen ya sea como premio, accésit o finalista. Se aceptarán fotografías que hayan sido presentadas en exposiciones o difundidas en Internet: blogs, galerías o páginas web personales.
- La técnica fotográfica será libre. Se aceptarán fotografías en color y en blanco y negro. Sólo existirá el formato digital. Se podrán presentar un máximo de 6 fotografías por persona. Se enviarán en formato JPG o JPEG, con al menos 3.000 píxeles del lado mayor sin interpolar. Los archivos no superarán los 5MB. Las personas premiadas deberán enviar la imagen seleccionada a máxima resolución posible y a 300 ppp.
- Se valorárá positivamente la presentación de fotografías en formato horizontal.
- Las fotografías no podrán ser alteradas electrónicamente ni por cualquier otro medio, no aceptándose foto-montajes. Únicamente se permitirán correcciones de color, contraste o luminosidad. En caso de duda, el jurado podrá solicitar a la persona autora el archivo original.

- Argazkiekin batera, irudia identifikatzen duen erreseina bat aurkeztuko da (izenburua, lekua, urtea, azalpen laburra). Datu horiek izena emateko inprimakian beteko dira, espazioari eta formari dagozkion murrizketak errespetatuz.

## 7. SARIAK

Parte-hartzaile bakoitzak ezingo du sari bat baino gehiago eskuratu. Argazki onenei honako sari hauek emango zaizkie.

**Sariak.**

1º – 900

2º – 600

3 – 300

**Donostia saria.**

300 € Tokiko Sari Berezia: Donostian bizi diren tokiko parte-hartzaileen argazki onenari saria emango zaio.

**Accesit sariak.**

Accesit batekin saritutako hurrengo 25 argazkien egileek Donostiako Udaleko Lankidetza Sailak emandako aitorpen bereziko diploma jasoko dute.

## 8. EPAIMAHAIA

- Epaimahaia argazkilari profesional batek (Javi Julio, argazkilari-kazetaria) eta proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariek osatuko dute.
- Antolatzaileek berariaz jakinaraziko diete epaimahaiaren erabakia sarituei, lanak jasotzeko epea amaitu eta hurrengo egunetan, jakinarazpenetarako inprimakian emandako helbide elektronikoaren bidez. Era berean, Lankidetza Sailak informazio hori bere webgunean (www.donostia.eus/lankidetza) eta egokitzat jotzen dituen bideak erabiliz zabalduko du. Epaia apelaezina izango da.

- Las fotografías irán acompañadas con una reseña que identifique la imagen (título, lugar, año, breve explicación). Estos datos se cumplimentarán en el formulario de inscripción, respetando las restricciones de espacio y forma.

## 7. PREMIOS

Cada participante no podrá obtener más de un premio. Se concederán los siguientes premios a las mejores fotografías.

**Premios**.

1º – 900

2º – 600

3º – 300

**Premio Donostia**.

300 € Premio Local Especial: Se concederá un premio a la mejor fotografía de participantes locales, residentes en Donostia/San Sebastián.

**Premios Accésit.**

Las y los autores de las 25 siguientes fotografías premiadas con un accésit, obtendrán un diploma de reconocimiento especial otorgado por el Departamento de Cooperación del Ayuntamiento de Donostia.

## 8. JURADO

- El jurado estará formado por un/a fotógrafo profesional (Javi Julio, Fotoperiodista) y representantes de entidades vinculadas a este proyecto.
- El fallo del jurado será comunicado expresamente por la organización a los y las premiadas, en los días posteriores al cierre de plazo de recepción, a través de la dirección de correo electrónico facilitada en el formulario a efecto de notificaciones. Del mismo modo, el Departamento de Cooperación difundirá esta información en su página web (www.donostia.eus/lankidetza) y a través de los canales que crea convenientes. El fallo será inapelable.

- Irabazleek saria onartzeko, jasotako mezuari erantzun egin beharko diote. Posta elektronikoa bidali eta 5 egun balioduneko epean erantzunik jasotzen ez bada, edo helbide elektronikoa okerra bada edo existitzen ez bada, saria epaimahaiak hautatutako hurrengo argazkira pasatuko da automatikoki.
- Epaimahaiak eta antolakuntzak oinarri hauetan jasotzen ez diren egoerak ebatzi ahal izango dituzte, baita horiek interpretatzean sortzen diren zalantzak ere.
- Antolatzaileek sariak eman gabe uzteko eskubidea izango dute.

## 9. JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEA

Parte-hartzaileek une oro atxikiko dituzte beren obren gaineko eskubideak. Lehiaketan parte hartzeko, parte-hartzaileek honako hauek egin behar dituzte:

- Lehiaketara aurkezten duen argazkiaren gaineko eskubide guztien titular bakarra dela bermatzea.
- Saritutako obren ustiapen eskubideak Donostiako Udalari doan lagako zaizkiola onartzea. Eskubide horiek barne hartzen dituzte: erreprodukzioa, banaketa, komunikazio publikoa, eraldaketa eta egokitzapena. Donostiako Udaleko Lankidetza Sailak modu etikoan erreproduzitu eta aldatu ahal izango ditu eskudirutan edo accesit gisa saritutako argazkiak, helburu komertzialik gabe, argitalpen edo buletinetako komunikazio- eta dibulgazio-materialetan, on-line euskarria barne, bai eta balizko argazki erakusketan ere.
- Saritutako argazkiak erabili ahal izatea onartzea, aldez aurretik jakinarazi behar izan gabe, betiere argazkiaren egilearen izena aipatuta.

## 10. IZAERA PERTSONALEKO DATUAK ERABILTZEKO BAIMENA ETA DATU HORIEN BABESA

Lehiaketan parte hartzen duten pertsonek, baimena ematen diote Donostiako Udalari beren datu pertsonalak lehiaketaren markoan egindako edozein fitxategi, komunikazio, ebazpen edo argitalpenerako erabil ditzan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamenduari jarraiki. Erregelamendu hori pertsona fisikoak datu pertsonalen tratamenduari dagokionez babesteari eta horien zirkulazio askeari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen du.

- Las personas ganadoras deberán responder al mensaje recibido aceptando el premio. Si en el plazo de 5 días hábiles desde el envío del correo electrónico no se recibe respuesta o si la dirección de correo electrónico fuese errónea o inexistente, el premio pasará automáticamente a la siguiente fotografía seleccionada por el jurado.
- El jurado y la organización podrán resolver aquellas situaciones que no se contemplen en estas bases, así como aquellas dudas que se planteen en su interpretación.
- La organización se reserva el derecho a declarar desiertos los premios.

## 9. DERECHO DE PROPIEDAD INTELECTUAL

Los participantes retendrán en todo momento los derechos sobre sus propias obras. La participación en el Concurso implica por parte de las personas participantes:

- Garantizar que es el único titular de todos los derechos sobre la fotografía que presenta a concurso.
- Aceptar que los derechos de explotación de las obras premiadas se cederán al Ayuntamiento de San Sebastián de manera gratuita. Dichos derechos abarcan la reproducción, distribución, comunicación pública, transformación y adaptación. Las fotografías premiadas bien en metálico o como accésit, podrán ser reproducidas y modificadas, sin fines comerciales y de forma ética por el Departamento de Cooperación del Ayuntamiento de Donostia en los materiales de comunicación y eventual divulgación en publicaciones o boletines, incluyendo soporte on-line, así como en una posible exposición fotográfica.
- Aceptar que las fotografías premiadas puedan ser utilizadas, sin necesidad de comunicación previa, siendo siempre mencionado el nombre de la persona autora de la fotografía.

## 10. AUTORIZACIÓN DEL USO DE DATOS DE CARÁCTER PERSONAL Y PROTECCIÓN DE DICHOS DATOS

Las personas participantes en el concurso autorizan al Ayuntamiento de San Sebastian a que se usen sus datos de carácter personal para la finalidad de cualquier fichero, comunicación, resolución o publicación realizada en el marco del concurso, y conforme al Reglamento 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, 27 de abril de 2016, sobre la protección de las personas físicas en relación al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos).

Parte-hartzaileek erregistrorako emandako datuak egiazkoak eta osoak izango dira. Hala ez balitz, erakundeak ez erregistratzeko eta ezabatzeko eskubidea izango du.

Hurrengo urtearen hasieran, parte-hartzaileek lagatako datu pertsonalak ezereztu eta automatikoki ezabatuko dira. Datu horiek eskaintzeari uko eginez gero, ezin izango da lehiaketan parte hartu.

Gainera, lehiaketan parte hartzeak berekin dakar irabazleek baimena ematea Udalari beren lanak Donostia Mundu Artean programaren bi-hileko buletinean argitaratzeko, bestelako komunikazio- eta dibulgazio-materialetan, Donostiako Udalaren webgunean eta balizko erakusketa batean argitaratzeko.

Erregelamenduaren 13. eta 14. artikuluen arabera, interesdunek eskubide hauek dituzte:

- Donostiako Udala zure datu pertsonalak tratatzen ari den baieztatzeko.
- Zure datu pertsonalak eskuratzeko, bai eta datu okerrak zuzentzea eskatzeko ere, edo, hala badagokio, ezabatzea eskatzeko, datuak ez badira beharrezkoak bildu ziren helburuetarako.
- Egoera jakin batzuetan, honako hauek eskatzeko:
  - Bere datuen tratamendua mugatzeko; kasu horretan, Udalak baino ez ditu gordeko erreklamazioak gauzatzeko edo defendatzeko.
  - Bere datuen tratamenduaren aurka egiteko; kasu horretan, Udalak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta premiazko arrazoi legitimoak daudenean edo erreklamazioak egin edo defendatzeagatik. Norberaren erabaki automatizatuetarako datuen tratamendua barne.

Donostiako Udala da datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna, eta udal honen aurrean erabili ahal izango dira eskubideak:

- Ijentea kalea, 1 – 20003 Donostia.
- **dbo@donostia.eus**

Eskubideak baliatu dituzunean behar bezala artatu ez bazaituzte, erreklamazioa aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Beato Tomás de Zumarraga kalea, 71 – 3. solairua – 01008 Vitoria-Gasteiz.

Los datos entregados por las personas participantes para el registro deberán ser veraces y completos. En caso de que no fuera así la organización se reserva el derecho de no registrarlos y eliminarlos.

Los datos Personales cedidos por los participantes se cancelarán y se eliminarán automáticamente al comienzo del año siguiente. Negarse a ofrecer dichos datos acarreará la imposibilidad de participar en el concurso.

Además, la participación en el concurso conlleva a las personas ganadoras a autorizar al Ayuntamiento a publicar sus trabajos en el boletín bimensual del programa Donostia Mundu Artean, en otros materiales de comunicación y eventual divulgación, en la web municipal del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián así como en una posible exposición.

Por últimos, Según artículos 13 y 14 del citado Reglamento, las personas interesadas tienen derecho a:

- Obtener confirmación sobre si el Ayuntamiento de San Sebastián está tratando sus datos personales.
- Acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar la supresión cuando los datos ya no sean necesarios para las finalidades para las cuales fueron recabados.
- Solicitar en determinadas circunstancias:
  - Limitar del tratamiento de sus datos; en cuyo caso solo se conservarán por el Ayuntamiento para el ejercicio o la defensa de reclamaciones.
  - La oposición al tratamiento de sus datos, en cuyo caso, el Ayuntamiento dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Incluido el tratamiento de sus datos para decisiones individuales automatizadas.

El responsable del tratamiento de los datos personales es el Ayuntamiento de San Sebastian y podrán ejercitarse los derechos ante este Ayuntamiento:

- Calle Igentea, 1 – 20003 San Sebastián
- **dbo@donostia.eus**

Si cuando ejercías tus derechos no te han atendido debidamente, podrás presentar una reclamación ante la Agencia Vasca de Protección de Datos. Dirección: C/ Beato Tomás de Zumárraga, 71 –3ª planta – 01008 Vitoria-Gasteiz.

## 11. ERANTZUKIZUNA

Lehiaketan parte hartzeak berekin dakar Interneten ezaugarrien, mugen eta arriskuen berri jakitea eta horiek onartzea. Lehiaketan parte hartzen duten pertsonek konpromisoa hartzen dute emandako informazioa osoa, egiazkoa eta eguneratua izan dadin.

Antolakuntzak ez du bere gain hartzen lehiaketan parte hartu duten eta/edo hautatu diren pertsonek emandako datuetan egon daitezkeen hutsegiteetatik, ez-egiteetatik edota faltsutzeetatik erator litekeen erantzukizunik. Antolakuntzari hirugarren batzuek erreklamazioren bat jartzen badiote, lehiaketara bidalitako argazkiren batek beren jabetza intelektualerako edo norberaren irudirako eskubidearen urraketaren bat dakarrela uste izateagatik, argazkia bidali duten parte hartzaileek beren gain hartu beharko dituzte erreklamazio horretatik erator litezkeen gastu, kostu eta kalte-ordain guztiak.

Lehiaketa honetan parte hartzeak hemen azaldutako oinarriak osorik onartzea dakar.

## 12. ANTOLAKETA

Lehiaketa Donostiako Udaleko Lankidetza Sailak antolatu du.

Informazio gehiago hemen:

**www.donostia.eus/lankidetza** **www.donostiaentremundos.org**

Jarri harremanetan: **943481471** **lankidetza@donostia.eus**

## 13. ERANSKINAK

Izena emateko formularioa hemen eskura daiteke:
**www.donostia.eus/lankidetza**

Transfer Donostia erabiltzeko gida laburra hemen:

**www.donostia.eus/lankidetza**

## 11. RESPONSABILIDAD

La participación en el Concurso implica el conocimiento y aceptación de las características, límites y riesgos de Internet. Las personas participantes en el Concurso se comprometen a que la información que faciliten sea completa, veraz y actualizada.

La Organización declina cualquier responsabilidad que pudiera derivarse de los posibles errores, omisiones o falsedades derivados de los datos facilitados por las personas concursantes y/o seleccionadas. En el supuesto de que la Organización fuese objeto de cualquier reclamación iniciada por terceras partes en base a posibles infracciones de los derechos de propiedad intelectual o de imagen de los mismos en relación con la fotografía enviada al concurso, las personas participantes responsables de haberla enviado asumirán cuantos gastos, costes e indemnizaciones pudieran derivarse de la reclamación.

La participación en el presente concurso implica la aceptación íntegra de las bases aquí expuestas.

## 12. ORGANIZACIÓN

El concurso está organizado por el Departamento de Cooperación del Ayuntamiento de Donostia.

Más información en:

**www.donostia.eus/lankidetza** **www.donostiaentremundos.org**

Contacta con: **943481471** **lankidetza@donostia.eus**

## 13. ANEXOS

Formulario de inscripción disponible en:
**www.donostia.eus/lankidetza**

Guía breve para el uso de Transfer Donostia en:
**www.donostia.eus/lankidetza**